

Helduen literatura

Beltzuria
Ixiar Rozas

Pamiela, 2014



Ahotsa ahoratuz

HARI GORRI DESBERDINAK erabili ditu Rozasek ohiko moldeetatik ihesi lan experimental hau ehun-tzeko. Irakurlearekin, intermitenteki, solasean aritu da, idazketa eta irakurketa prozesua partekatuz. Hortaz, elkarrekin egingo duzue bidea, plazer baduzue, *Beltzuria* liburuan.

Ahotsari buruzko gogoeta egiten du bertan idazleak. Hitzarekin batera doan osagai fisikoari erreparatu nahi dio, gorputza eta mugimendua direnak azpimarratu nahi ditu, pertsona bakoitzaren ezaugarri propioari arreta eskaini, bakantasan horren gainean fokua ezarri, eta beste pertsona, gorputz eta ahotsekin duen hartu-emanaz aztertu. Hori behar duen arnasa emanez eta dagokion espazioa eskainiz egin nahi du. Ohi ez dugun bezala.

Hitzetatik, esanahietatik, literaturatik harago joan nahi du lan honekin. Letrak irudiekin eta haragiarekin kontaktuan jarri nahi ditu, elkar ukituz, ideiak mamituz. Horren adibide ditugu liburu honen azala eta kontrazala, egituraketa, maketazioa. Letrekin batera letren kokapena eta itxura dauzkagu, kolore zuria eta beltzaren arteko konbinazioak, puntu jarraien presentzia absentiak irudikatzen, eta puntuok osatutako lerroak elkarrekin dantzan.

Zentzumen guztiekin irakurtzeko gonbitea egiten digu egileak. Begiradaren laguntzaz irakurtzeaz gain hitz batzuk ahoz gora irakurriko ditugu tarteka, irudi eta oroitzapen batzuekin itsasoa eta basoa

entzun eta usainduko ditugu, eta orriak pasatzean, oharrak irakurtzera joatean, aurreko atal batera bueltatzean edota liburua utzi eta berriro hartzean, eskuekin ere parte hartuko dugu bidaia honetan.

Beste hari gorri nagusi bat memoriaren zuloak dira. Falta diren gauzen bila dabil testuko ahots gidaria. Desagertutako hitzen eta ahotsen atzetik orriotan zehar. Poesia eta performatibitatearen laguntzaz chizan doa, zenbait hitz, irudi eta oroimen berreskuratuz. Kartografia afektibo bat osatzen du bere Xamui aitaxi eta Lina amatxiren arrastoen bila: “Orainari biziraupen aukera bat ematen saiatzeko” ahaleginean.

Hauskortasuna eta indarra topatzen ditu ahotsean, eta isiltasunean. Hildakoen eta bizidunen arteko harremanaz ari da, errealitatea memoria eta ametsekin zelan osatzen dugun erakutsiz, gorputzeko ertzetan itsatsita geratzen diren irudien ziztadak bilduz eta elkarrekin josiz.

Beltzuria hitza erreskatatu du Rozasek lan honetan, gorputza gabela gogoratu eta azpimarratu, ahotzaren berezitasunak agerian utzi espazio politikoa dela azalduz, maite ditugunak hiltzean gurekin nola geratzen diren eta zein leku egiten diegun hausnarrarazi digu, eta eguneroko erritmo bizkorra jaistera behartu gaitu, irakurketaren unea soseguz eta kontzienteki espermentatu ahal izateko. ■

Amaia Alvarez Uria



EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu
pertsonalizatueta adituak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria

© 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com

